

Aberri-Eguna

Alderdi, 283. zk., 1973-03/04.

Aurtengoa ez da igezkoa bezala joango.

Denok ezagutzen ditugun eragozpenak ez digute, noski, nai genduen bezala gure gogoak erakusteko biderik aurten ere uzten. Au, gure aurrean dugun betiko arerioari dagokion merezimendua da. Beste aldetik, ordea, ez dugu Euskal Alderdi Jeltzaleak desio eta billatutako Aberri-bideak elkar ibiltzeko neurririk lortu. Ez da gure utsa izan; bestela, guk egin ditugun aalegin guziek ez dira nai genduenera iritxi. Eta, egia esan, usterik gutxienekoen eskua falta izan zaigu denak elkar Euzkadi gure erri bezala aitortzeko bear genduenean.

Ez eta goibel diogu, ez da aurtengo Aberri-Eguna guk amestu genduen izango.

Ala ere uste dugu, fede onez noski, EAJ-ak egin duen aalegiña ez dela alperrikako izango. Ez dugu guk itxaropena au ain errez galtzekoa; bestela ez genduen jo-muga baterutz orrenbeste urte lanean iraungo. Gu ez gera, gero *leengo zaarrak* bakarrik, eta onek aurrera-bidea idekia uzten du; ez gera *oraingo gazteak* bakarrik ere, onek zentzugabeko etena besterik ez bait luke erakutsiko. Gu leen eta oraingo gizonak disziplina eta lan-bide etengabeko batean ari geranok osatzen dugun *Alderdi* gera.

Onek ez du iñor mindu nai; baietz onek ez du, bestaldetik, iñor arrotzeko bidean jarri nai.

Izan ditugu, ba ditugu eta izango ditugu oraindik guk utsaldiak, eta aitormen onek ez gaitu makurtzen; egi-billa eta aberri-billa eta Euzkadiko gizemakumen Askatasun-billa bultzatzen gaituen betiko erritapadak ditugu, besterik ez, gora-beera oiek. Askatasun-billa dabillanak izaten ditu auleriak eta indarberitzeak. Gizon-lege beraz bizi dire erriak ere. Baiña iñork leporatzen dizkigu batzutan guk nai ez ditugun beraunak egoetan, eta guk, gaurkoak batez ere, esan dezagun berriz, Askatasun bat aitutzen dugunean ez gerala Aberri-askatasunez bakarrik ari; onetaz ere ari bagera ere, Askatasuna bat dela, bai eta onetaz ari geranean, barruan daramazkian beste sozial eta politika eta kultura alderdiak ezin aaztu ditugula. Bestalde, Askatasun aitutzen dugunean, gizonaren neurri oso-osoa aitortu nai dugula.

Ez da ba, ez, aurtengo Aberri-Eguna igezkoa bezala joango.

Batetik, *barrutik* egin bear genduen elkar-erakustea ez dugu egin zian aal, eta bide ontan motz iritxi gera; bestetik, ordea, ontara irixteko egin ditugun aalegin leial eta beroak aurpegi eta biotz asko erakutsi dizkigu. Batez beste, itxaropen berri baten argia zabaltzen asia da gure artean, eta aurtengo ezin-iritxiak itxaropentsu den norabait garamazkila begiztatzea ez da zailla.

Bestetik, *kanpora* begira jarri-ta: argi dago Euzkadiren arerioak il-zoriak jota dauzkala; eta onen eriotzak gure bizi-bide berriak ekarriko dizkigula, eta bide oiek ibiltzeko elkarrenganako eroapenez beste elkartuko gaituanak indartu bear ditugula nai eta nai ez.

Señaleak ikusten dituanarentzat argia dario aurtengo Aberri-Egunak.